

berria

HAUR ETA GAZTE LITERATURA. 'ALIZIA HERRIALDE MIRESGARRIAN'

Wonderland

Idazlea: **Lewis Carrol.**


Ilustratzailea: **Chris Riddell.**

Itzultzailea: **Aitor Arana.**

Argitaratzailea: **Ibaizabal.**

2020ko azaroak 8

Halako poztasun berezi batek hartzen gaitu, *Alizia*-ren edizio berri bat argitaratzean.



Irakurrita ote dugun galdetzera ez naiz ausartzen; ziur naiz, ordea, iruditegi kolektiboa aberastu duten Aliziaren istorioaren zertzelada horiek gu guztion baitan jasoak daudela.

Liburukote ederra da, 19 x 25 zentimetrokoa eta 328 orrialdekoa, aitzin- eta gibel-solasak barne. Baina tamainak ez diezazula ilusioa zapuztu, zeren, liburu mardula izanik ere, mardultasuna edizioaren ezaugarriengatik datorkio-eta: paper lodia, tamaina bateko letrak, lerroarte ondrosoak, ilustrazioetan oparo... Ez izutu, liburuaren gerribuelta testutik ez dator-eta. Konparaziorako, euskaraz dugun itzulpen kanonikoa, Manu Lopez Gasenirena, 136 orrialdekoa da, eranskinak eta guzti.

Edizio berri hau Chris Riddell ilustratzaile ospetsuaren eraginpean plazaratutakoa da, duela ez hainbeste Rebecca Dautremerekin egin zuten bezala (ez euskaraz, tamalez), ilustrazioak haur literaturan duen pisuaren erakusgarri.

Alde horretatik, Riddellen lana gorabeheratsua iruditu zait, bere bertuteak bezala bere mugak erakusten dituen. Lehendik ere bagenekien bezala, iruditegi propioak sortzen aparta dela erakutsi du oraingoan ere, aberastasun eta trinkotasun handiko emaitzekin, baina errealismo handiagoko saiakeretan langa nabarmen behera gelditu zaio, Aliziaren errepresentazioarekin egingakoetan, batik bat.

Testua jatorrizkoari fidel zaio, atal eta pasarte originalak mantentzen dituen neurrian, eta euskarazko bertsioa egiteko itzulpen berri bat eskaini zaigu, Aitor Aranaren eskutik.

Orain arte beste bi bertsio oso genituen, biak ere Lopez Gasenirenak, 1989koa (*Aliceren abenturak lurralde miresgarrian*), eta 2015ekoa (*Aliziaren abenturak herrialde miresgarrian*). Bietatik lehena da, nire ustez, bertsio kanonikoa, jatorrizkoari erabat fidel zaiona ñabardura xeheetan ere, eta aldi berean euskararen ahalak muga berrietaraino hedatzeko bertutea erakusten duena.

Nire ustez, nabarmena da Arana 1989ko itzulpenean oinarritu dela bere bertsioa osatzeko. Batik bat testu hura haurrentzat arrotz edota eskuragaitz egin zezakeen guztia berridaztea izan da bere ekarpen nagusia, eta jatorrizkoa ikusita, lan itzela egin du Aranak. Nik uste behingoagatik haur euskaldunak murgil daitezkeela Aliziaren abenturetan, hasi eta bukatu, idazkeragatik kezkatu behar izan gabe.

Bertan zer aurkituko duten badakigu: Aliziaren abenturak *fantasia* hitzaren esanahiaren bilaketa dira, lurralde mitiko batean gorpuzturik aurkezten zaiguna. Agian, horregatik dago hainbeste zailtasun jatorrizko *Wonderland* beste hizkuntzetan emateko.

Agian *Wonderland* hitza ezin da itzuli, irudimen jolas batean sortutako fantasiaren bertsio posible bat delako, bakarra, edozein amets zein eldarnio den bezainbat. Baina kasu honetan jostagarria, borobila, betea, elkarrekin partekatu eta bisitatzeko modukoa.

Honegatik, lagun, edizio berri hau primerako aitzakia izan daiteke zorraz kitatzeko.

Imanol Mercero